

ANTSO JAKITUNA FUNDAZIOA

Euskal memoriaren gordailu

Euskal dokumentazioaren ondare aberats eta osatuenetakoa biltzen du Antso Jakituna fundazioak; Betoñun egoitza berria izango du datorren urtean

Anakoz Amenabar. Gasteiz

Mundu osoko ikertzaileen lantokia da Antso Jakituna Fundazioa. Gasteizko Zulueta jauregian edota Internet bitartez, euskal kulturaren inguruko gaietan erreferentzia gune nagusia bilakatu da, bertan gordetzen duen altxor baliotsuagatik. Euskal gaien inguruko milaka argazki, liburu, afixa eta aldizkari gordetzen ditu, historiaren lekuko. Dokumentuetan arakatzera ikasle, ikertzaile eta kazetari ugari heltzen da egunero.

XIV. mendeko eskuizkribuak, XVI. mendeko argitarapen eta material kartografikoak, XIX. mendeko material grafikoak eta teknologia berrien eraginez sortutako material berriak ere aurki daitezke dokumentazio gune erraldoi horretan. 1964an eman zituen lehendabiziko pausoak fundazioak, eta, oraindik ere, helburu berei eusten die: Euskal kulturari buruzko dokumentazioa bildu, antolatu, zaindu eta ezagutzera ematea da gure eginbeharra, azaldu du fundazioko zuzendari Carmen Gomezek. Lehen ikertzaileek Madrilera edo Simancasera jo behar zuten informazio bila, eta Antso Jakitunarekin euskal kultura osoa batuko zuen zentroa sortu zen, ezinbestekoa.

Dozena bat lagunek egiten dute lan Zulueta jauregian, baina eurekin batera urtero izaten dituzte bibliotekonomia eta historia ikasleak. Lan oso garrantzitsua egiten dute, eurak ari dira artxibo nagusiak sailkatzen. Izan ere, amaigabeko lana dago fundazioan. Egunero materialez betetako kutxak heltzen dira, eta horiek antolatu beharra dago. Denetarik jasotzen dute, ohiko liburu eta aldizkarietatik manifestazioetako esku orri edo afixetara. Dokumentazio mota horretan ahalegin berezia egiten ari gara, hain zuzen ez zegoelako gunerik halakoak jasotzen zituenik, Lazkaokoa salbu. Gomezen arabera, historia behar bezala ezagutzeko beharrezkoak dira kalean jasotakoak ere: Zuk uste duzu norbaitek ikas dezakeela trantsizioa garaiko horma irudirik gabe, kalean bota zena eduki gabe? Ikuspegi partziala bai, baina osoa ez du izango.

Antonio Odriozolari liburutegia erosita hasi zen, 1964an, Antso Jakituna bibliografia eta dokumentu fondoa sortzen, XVII.etik XX.era bitarteko monografiez osatutako materialarekin. Urteekin, beste hainbat erosketa eta dohaitza jaso ditu, eta, gaur egun, munduko euskal dokumentu gune garrantzitsuenetakoa da. Aldaketa sozial eta politikoen lekuko, filosofiak, gastronomiak, arteak, zinemak edota hedabideek tarte zabala dute liburutegiko apalen artean. Azkeneko hauteskundeetan esaterako, alderdi politikoetako lagunak izan ziren informazio bila, aurreko urteetan zer agindu zuten gogoratzera.

Baina ez dago zertan Zulueta jauregira gerturatu beharrik, etxetik ere ikus baitaitezke bertan gordetzen diren altxorrak, Interneti esker. Dokumentuen kontserbazioa bermatu eta kontsulta errazteko xedez, digitalizazioa da fundazioak duen helburu nagusietakoa. Saenz de Tejada, Otazu, Larrea, Lagartxa

Ferreria edota Barrutia familia eta enpresen artxiboak aurki daitezke, esate baterako, 25.000 erreferentzia baino gehiagorekin.

Azken hamabost urteotan asko aldatu da informazioaren hedapena. Lehen Amerikatik ere etortzen ziren ikerketa egitera, orain, berriz, webgunearen bitartez, aukera dute edozein artxibotan arakatzeko. Lehendabizi kontsulta egin eta gero euskarri optikoak eskatzeko aukera ere badauka sarean sartzen denak, digitalizatuta helduko zaio eskatutakoa. Gure ondarea leku guztietara heltzea da gure helburua. Apustu garrantzitsua egin dugu digitalizazioaren alde. Ahalik eta arinen eta ahalegin txikienarekin lortu nahi du informazioa jendeak. Eta apustuak emaitzak ekarri ditu dagoeneko; izan ere, ia bi milioi kontsulta izan ditu aurten webguneak. Sarean gero eta eduki gehiago sartzea da asmoa, egoitzara etorri gabe munduko edozein bazterretik eskura izateko.

Digitalizazioa poliki doa, ez baita erraza 230.000 erregistro bibliografiko edota 1,6 milioi argazki sartzea. Programa berri bati esker, gainera, horietako asko trata eta molda daitezke hobeto irakurri ahal izateko. 1993an hasi ziren egitasmo informatikoarekin eta lan zabala digitalizatzea ahalbidetu du, artxibo pribatuak, aldizkarietako artikuluak eta sumarioak tartean.

Artxibo pribatuak leku berezia dute Zulueta jauregian. 1993an jarri zuten abian zerbitzu hau, eskuratzeko zailak ziren familia artxiboak kontserbatu eta ikerketari bide emateko. Erosita batzuetan eta jabeek aldi baterako utzita besteetan, XIII. mendetik XX. mendera artxibo hauetatik milaka dokumentu katalogatu, digitalizatu eta datu basea ere sortu dute. Temperatura egokiarekin eta kutxa berezietan sartuta, behin liburua digitalizatuta ez da ikerkuntzarako gehiago aterako, salbuespenak salbuespen.

Yrizar artxiboa izan da jaso duten azkena, eta oraindik sailkatze prozesuan ari dira. Artxibo garrantzitsu horri esker, 1332ko hainbat dokumentu tartean, Azkoitia herria edota Hego Amerikaren inguruko ikerketetan sakontzeko aukera izango da. Izugarri garrantzitsuak dira artxibo hauek. Garai ezberdinak bertatik bertara ezagutzeko modu bakarra dira. Familiako gaixotasunak, herentziak, lurrak. Zonalde eta garaiairen historia sozial eta politiko zehatza eskaintzen digute. Dagokion familiarekin akordioa lortuta eskuratzen ditu fundazioak dokumentuak: Lan teknikoa egiten dugu batik bat, ordenatu eta katalogatu egiten dugu, eta ondoren digitalizatu. Sarean aterako ez den ezer ez dugu onartzen.

Ondo katalogatutako mila mapa baino gehiago ere badaude kartografia bilduman. Errenazimenduko Abraham Ortelius geografoaren atlasetik XXI. mendeko formatu digitaleko mapetara. Eta aurrera begira, gainera, pegatina eta kartel bilduma ere jarriko dute sarean.

Fundazioa sortu zenetik, halaber, euskal kulturaren inguruko alderdi guztiei buruzko gogoeta tokia egiten saiatu dira. Eta horretarako, hainbat jarduera antolatu izan dituzte, hitzaldi, mintegi eta erakusketak tartean.